

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 58. zk (azaroa 2024)

Etorkizuneko denda erabakitzen

▼ **Ander San Jose**
Donostitik Itsadondora

▼ **Familien arteko**
komunikazioa hizpide

▼ **Urkiko egonaldi**
mundiala

03 Udaleko berriak
04 Haurreskola
05 Eskola
06 Guraso elkarte
07 Natura
08-09 Hitzar
10-13 Gazteria
14-17 Elkarrizketa: Ander San Jose
Galparsoro
18-19 Dendako parte hartze prozesua
20-23 Kulturartekotasuna
24-25 Jaiak
26 Motzean: Saioa Garcia Rodriguez
eta Jon Sanmartin
27-29 Hemeroteka
30 Liburutegia / Errezeta
31 Euskara
32 Agenda

Sarrerako
bertsoak

Doinua:
ama begira zazu.

Ikasturte hasiera

Motxilak hartu eta berriz eskolara pena eman digula bukatzeara udara.	Ibilaldi luzea Izozkia jatera Itsasondora berriz Itzuliko gera.
Ikasturtea hasi Ta gu festetara Energiak hartuta Bagoaz gelara	Gogotsu hasi gera Ikasturte hontan Partaide berri batzuk Ditugu gurean
Guztiok elkarrekin Goaz Zarautzera Harremanak estutu Ta ondo pasatzera	Euskaraz euskaratik Arian-arian Urkipearren aztarna Utziaz herrian.



Itsasondo 2.0 aldizkariaren ale honetan hainbat kontu eta berri izango ditugu; izan ere, 2024ko azken hilabeteetarako ez aspertzeko moduko ekintzak antolatu dira herrian. Gehiago jakin nahi? Ekin die-zaiogun, bada, irakurketari!

Denda berria plazan egongo da eta udaz geroztik horretarako obra egin da. Dendak herrian duen garrantziaz jakitun izanik, parte-hartze prozesua egin da itsason- doarrok zer nolako denda nahi edo behar dugun jakiteko, eta informazio esangura- tsua bildu da. Egon adi, beraz, ez da nola- nahiko proiektua-eta!

Gainera, urtero bezala, irailean herriko festak ospatu dira. Beti da gozagarri festa giroan gertatutakoak irakurri eta gogora- tzea, ezta? Ez galdu, bada, hurrengo orrie- tan gai horren inguruan dagoen kronika. Festez gain, kulturartekotasunaz, kometa bati buruz edota aurten 2 urte bete dituen Hitzarri buruz ere hitz egingo dugu. Eta, elkarrizketa luzeari dagokionez, Ander San Jose izan da elkarrizketatua.

Horrez gain, besteetan bezala, haur-es- kolakoen eta eskolakoen berri izango dugu. Haur-eskolakoek kurtso hasierako datuak eman dituzte, eta eskolakoek, aldiz, Urkiko egonaldia kontatu dute. Familiako komunikazioa ere oso garrantzitsua da, eta horren inguruan aritu dira guraso elkar- tekoak. Gazteria alorrean, berriz, Gazte- lekuko arautegia, hezitzaileen aurkezpena eta gazte asanbladaren sorrerari buruzkoak izango ditugu irakurgai.

Besterik gabe, esku artean duzuen aleaz gozatzea espero dugu!

UFFF edo Udalak finantzatzeko Foru funtsa

Kontzertu ekonomikoa, itunean oinarritutako finantzaketa-sistema bat da. Horren bidez, EAEko erakunde maila guztiak (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) baliabidez elikatzen dituen zerga-sistema propio bat arautu eta kudeatzen da, bere gastu politikak finantzatzeko, eta, gainera, bere gain hartu ez diren eskumenengatik Estatuak dituen karga orokorrak kupo bidez finantzatzeko.

Horrela izanik, kontzertu ekonomikoan sartuta dauden zergen bidez sortzen diren diru-sarrerak, KUPOA ordaintzera, Eusko Jaurlaritzara; foru aldundietara eta udaletara doaz, kalkulo zehatz eta konplikatuaren ondoren.

Eta azalpen hauek guztiak zertarako eman ditugu? Diruen banaketako foru funtsa (UFFFa) arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 3.1 a) artikuluan jasotako banaketa irizpidea eguneratu eta egokitu egin dela esateko.

Erabaki horren bitartez, 1994ko araudia eguneratu egingo da, Gipuzkoako udalerrri txikien mesedetan. Izan ere, azken 30 urte hauetan 1.100 biztanle arteko udalei kuota finko bat esleitu izan zaie UFFFean, herri txikiak izateak dakartzan zailtasunei eta egoera bereziari aurre egiteko. Kuota finko horren zenbatekoa, ordea, berrikusi gabe zegoen 1994tik. Hala, aurrerantzean, udal txiki horiei UFFFaren %1,2 gordeko zaie, eta zati berdinetan banatuko da haien artean.



Laburbilduz, 1.100 biztanlez azpiko udalek 2025.urtetik aurrera Foru Funtsetik jasoko duten diru kopurua handiagoa izango da eta urtero eguneratuko da, azken 30 urtetan geldirik egon ondoren; igoerarik ez egoteak udal txikiei galera handia eragin die.

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei bidali dien aurreikuspenaren baitan, 2025.urterako aurreikusten den Foru Funtsoa 803.392 € izango da, eta aurten 600.345 € jaso ditugu. Hortaz, 203.045€ gehiago jasoko ditugu, aurten baino %33,82 gehiago.

Ikusirik foru funts hau dela Udalaren diru-sarrera nagusia, berri garrantzitsua da Itsasondo moduko herri txikientzat.

Kurtso hasierako datu batzuk

Ikasturte berria irailaren 5ean hasi genuen, urtebeteko eta 2 urteko hamar umerekin. Aurten bi hezitzaile hasi gara, ditugun haur guztiak HH 1 eta HH2koak direlako, eta adin horietako geletako ratioa 13 haur direnez, hiru haurrentzako lekua dugu haurreskolan.

Iraila guztian egokitzen prozesuan ibili gara. Hamar haur horietatik bost berriak ziren eta bost lehengo urtekoak. Esan behar da lehengo urteko haurrek ez dutela egokitzen prozesua egin beharrik izaten, baina beti aholkatzen dugula zertxobait egitea; batik bat, haur horiek errutinen bidez barneratzen dutelako egunerokotasuna. Eguneroko errepikatuz, haien eguneroko sekuentzia guztiak ikasten dituzte eta erreferentziak hartuz joaten dira; adibidez, badakite bazkaldu ondoren gurasoa etorriko zaiela bila, edo siesta egin eta gero etorriko direla etxeetara. Orduan hasten dira haurreskolan lasai egoten. Egokitzen prozesua pazientziarekin hartu behar da, dena denbora kontua da, eta haurrek haien garapenean dituzten ezaugarrien arabera ere izango da. Hezitzaileek prozesua oso barneratua dute eta lasai egon ohi dira, badakitelako denbora pasa ahala haurrek haurreskolako egunerokotasuna barneratuko dutela.

Urriari begira egoera aldatu egin zaigu. 0-1 urteko haur bat matrikulatu zaigu eta horregatik beste hezitzaile bat etorri da haurreskolara. Beraz, aurten ere bi gelak ireki dira eta 0-1 gelan 7 plaza daude libre. Hortaz, momentuz, HH 1-2ko gelan hamar ume daude, eta 0-1 gelan haur bat. Hala ere, 0-1eko haur gehiago sartu arte 1-2ko haur txikiak 0-1 gelan egongo dira lasaiago egoteko. Txikiak oraindik lau hankatan dabilta eta zaharrenak korrika; beraz, desoreka egoten da, zaharrenek mugimendu gehiago behar dute eta txikiak lasaitasun gehiago.



Horregatik ondo etortzen da 0-1 urteko haurrak pixkanaka hasten haurreskolan; horrela, HH 1-2ko txikiak espazio lasaiago batean egon daitezke oinez hasi arte eta, bestetik, gure haurreskolako gelak oso txikiak direnez, denbora batean libratu egiten da gela eta giro lasaiagoa egoten da.

Azkenik, gogoratu matrikulak haurreskolan hasi baino hilabete lehenago egin behar direla, hil horren 1etik 10era; eta haurreskolak publikoak eta doakoak direla. Edozein informazio nahi baduzue, haurreskolara gerturatu zaitezke. Matrikula bertan jaso dezakezue eta dokumentuak bertara ekarri behar dira.

Munduko egonaldirik onena!

Ekainaren 18tik 20ra egin genuen Urkiko egonaldia Urkipe herri eskolako 3. zikloko ikasleok eta irakasleak. Oso emozionatuta geunden joateko.

Motxilak bizkarrean hartuta oinez igo ginen, motxilek izugarri pisatzen zuten eta izugarri nekatu ginen. Iritsi gine-nean, frontoia lotarako prestatu genuen. Dena prestatu ondoren, etxetik ekarritako bokadilo goxo-goxoa jan genuen. Ondoren, aurretik eskolan antolatutako jolasetan ibili ginen, bandera lapurtzea jolasean nahi gabe beste baserriko terrenoan sartu ginen eta horrekin ere algara batzuk egin genituen. Arratsalde osoa jolasten ibili ondoren afaria prestatzeko ueña iritsi zen, eta uraren bila joan behar izan ginen beheko iturrira. Uraren bila joan ginenean zapaburuak igerian zebiltzala konturatu ginen eta haiekin jolasean aritu ginen. Batzuei izugarrizko nazka ematen zieten eta zirikatzen ibili ginen, ederki pasa genuen. Afaltzeko txanda batzuk prestatu genituen eta txanda horiek errespetatuz hanturgesa goxo bat afaldu genuen. Ilundu zain geundela, irakasle batek trentzak egin zizkigun.

Gauean beste jolas batzuetan ibili ginen, eta ilundu zuela aprobetxatuz linternen jokoan ibili ginen. Irakasle eta ikasle bat zaindaria zeudela, irakaslea despistatu egin zen eta esan zuen: "begira ze polita dagoen Txindoki" eta bat-batean beste ikasle bati entzun genion: "irabazi dugu!". Oso zaila zen beste ekipokoak oso onak baitziren.

Esnatu eta gero gosaltzeko krepak jan genituen txokolate kremarekin, natarekin eta frutarekin. Gosaldu ondoren mendi buelta bat egin genuen. Bazkaltzeko ordua iritsi zen eta taldekideek prestatutako makarroiak jan genituen. Arratsaldean meriendatu eta jolas mordo batzuetan jolasten aritu ginen. Jolastu ondoren kanpoan afaltzen saiatu ginen, baina euria hasi zen eta barrura sartu ginen. Afaltzeko petxuga batzuk jan genituen. Gauean UNO jolasean ibili ginen. Goizeko ordubata eta erdietan lotara joatean denok leher eginda geunden eta segituan lo hartu genuen.

Azken egunean gosalduta eta dena txukundu ondoren herrira jaitsi ginen. Hemen amaitu zen gure bizitzako egonaldirik onena, izugarria izan zen, inoiz baino hobeto pasa genuen eta aurten ere abentura errepikatzea espero dugu.



Komunikazioa familian

Harreman sendoak eraikitzeko, ezinbestekoa da gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio etengabea eta zintzoa.



Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa ezinbestekoa da harreman osasuntsuak eta sendoak eraikitzeko. Komunikazio eraginkorra izanik, konfiantzazko lotura bat sor-tzen da, eta horrek familia-ingurune atsegina eta segurua sortzen laguntzen du.

Haurrek gurasoekin komunikatzeko aukera izan behar dute, beraien sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko. Horrek haurrei emozionalki garatzen laguntzen die eta beraien burua hobeto eza-gutzen. Bestalde, gurasoek ere haurrekin komunikatu behar dute, eta beren baloreak eta arauak transmititu behar dizkizkiete.

Zergatik da hain garrantzitsua komunikazioa?

- **Konfiantza sortzen du:** Komunikazio ireki eta errespetuzkoak konfiantzazko lotura bat sortzen du. Haurrek gurasoekin konfiantza eduki behar dute eta gurasoek haurrengan ere konfiantza izan behar dute.
- **Arazoak konpontzen laguntzen du:** Komunikazio eraginkorrak arazoak azkarrago eta errazago konpontzeko aukera ematen du.
- **Haurrak hezten laguntzen du:** Komunikazioaren bidez, gurasoek haurrei baloreak transmititu eta bizitzako erronkei aurre egiten erakutsi diezaiekete.
- **Haurren garapen emozionala sustatzen du:** Komunikazio irekia izanik, haurrek beren sentimenduak adierazten eta kudeatzen ikasten dute.

Nola hobetu guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa?

- **Entzun aktiboki:** Haurrak hitz egiten ari direnean arreta osoa jarri eta moztu gabe entzun.
- **Epaitu gabe hitz egin:** Haurrei hitz egiteko espazioa eman eta haien sentimenduak errespetatu.
- **Galderak egin:** Haurrei esan nahi duten hori hobeto adierazten laguntzeko, galderak egin.
- **Denbora eskaini:** Egunero denbora pixka bat eskaini haurrekin hitz egiteko.

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa ezinbestekoa da familia-harreman sendoak eraikitzeko. Komunikazio eraginkorra izanik, haurrak emozionalki osasuntsu hazten dira eta bizitzako erronkei aurre egiten ikasten dute.

C/2023 A3 kometa (Tsuchinshan-ATLAS) begi hutsez ikusi ahal izango da urrian

Mendeko kometa izenez ere ezagutzen da kometa hau, eta bi behatokik 2023an aurkitu zuten, Txinako Mendi Purpuraren (Tsuchinshan) eta ATLASeko kide den Hegoafrikako Behatoki Astronomikoak, hortik bere izena.

I lunabarraren ondoren, hodeien baimenarekin, aparteko kometa bat begi hutsez ikusteko aukera izango da urrian zehar, izotzez eta harkaitzez osatutako bolido bat gure planetara hurbilduko baita urriaren 12tik aurrera.

Kometek elur-bola erraldioen itxura dute, eta harriz, izotzez, hautsez, karbono dioxidoz, metanoz eta beste gas batzuez osatuta daude. Kuiperren gerrikoan (Neptunoren orbitatik haratago) sortzen dira eta, eguzkirantz bidaiatzen hasten diren heinean, desagiten hasten dira. Eguzkiaren beroak izotza lurruntzen du, koma izeneko kometaren nukleoaren inguruan hauts eta gas-halo bat utziz.

Martera hurbildu ahala, kometak isatsa sortzen hasten dira, milioika kilometroko luzera hartu arte. Ikusgarriak bihurtzen dira eta izar iheskor bezala ere ezagutu ohi dira.

Kometek eta asteroideek beldur handia ematen diote giza adimenari. Eta arrazoiz: etorkizuneko uneren batean, harri trinko edo buztinezko bola izotzu horietako batek talka egingo du Lurrarekin, historiaren ibilbidea aldatuz. Jakina da duela 65 milioi urte dinosauoak suntsitu zituela horrelako batek.

Oraingo honetan gehiegi kezkatu beharrik ez daukagu, Lurretik 71 milioi kilometrotaraino bakarrik gerturatuko baita. Kometa baten hurbiltasun errekorra 1770 urtekoa da eta gure arbasoen buruak baino 2,2 milioi kilometro gorago "bakarrik" hegan egin zuen.



Asteroideak, kometak eta meteoritoak duela 4.500 milioi urte eguzkia, planetak eta ilargiak sortuz kondentsatu zen gas eta hautsezko hodei erraldoi baten hondartzat hartzen dira. Lurretik oso urrun bidaiatu ohi dute, baina begi hutsez ikusi ditzakegu gure planetatik gertu daudenean.

Asteroideak harri eta metalezkoak dira, eta milioika dira Eguzkiaren inguruan orbitatzen, Marte eta Jupiter artean dagoen gerriko estu batean. Oro har, meteoritoak eta kometak baino handiagoak dira, eta 100 metrotik 960 kilometrorara arteko zabalera izan dezakete. Horiek dira arriskuak sor ditzaketenak.

Europako Espazio Agentziak (ESA), NASAren eta beste agentzia batzuekin batera, zerua zaintzen du asteroide arriskutsuak identifikatu eta arakatzeko. Baina asteroide baten etorrera antzemanaz gero, zer egin daiteke hura geldiarazteko?

Ahalegin horretan, 2022ko irailaren 27an, NASAk lortu zuen ontzi batek talka egitea 11 milioi kilometrorara zegoen Dimorphos izeneko asteroide txiki baten aurka. Talka haren ondorioz, hondakin pila bat espazioan milaka kilometrorara jaurti ziren eta asteroidearen orbita desbideratzea lortu zen. Gizateriak zeruko elementu baten ibilbidea nahita aldatzen zuen lehen aldia izan zen, eta, NASAko arduradunen arabera, misio haren arrakastak planetaren etorkizuneko defentsarako oinarriak ezartzen ditu.

Orain, duela egun gutxi, atera da Lurretik Europako Espazio Agentziaren lehen ontzia, aipaturiko asteroide horren desbideratzearen eraginkortasuna ikertzera. Bidaia luze xamarra du hala ere, eta, ezer okertu ezean, bi urte barru iritsiko da Dimorphos ingurura.

HITZAR 2. urteurrena

Energia berriztagarriaren bidean hazten

Orain dela bi urte sortu zen Hitzar Energia Komunitatea, urriaren 25ean. Ibilbide labur honetan, gauza ugari egin ditugu: bi proiektu fotovoltaiko garatu, bazkide berriak egin eta proiektuaren zabalkundean Goierrigintzan aurrerapausoak eman.



Aurten HITZAR kooperatibaren 2. urteurrena ospatzen dugu, eta harro gaude gure komunitatearekin egindako ibilbideaz. Hasiarik, helburua argia izan da: **tokiko energia berriztagarria sustatzea** eta gure ingurunean **energia eredu jasangarriago bat** eraikitzea.

Pozik gaude, lan handia egin dugulako. Eta gure webgune berria ere abian dela jakinarazi nahi dizuegu: www.hitzar.eus. Webguneak aukera emanago dizue gure proiektuak, ekimenak eta berriak jarraitzeko. Eta nola ez BAZKIDETZA egiteko webgunearen bidez ikusiko duzue nola ari garen gure ametsak errealitate bihurtzen, pausoz pauso.

Dagoeneko bi proiektu jarri ditugu martxan:

- **Iraola** (10kW): Instalazio fotovoltaiko txikia, baina oso esanguratsua. Gure lehen urratsa.
- **Lukasain** (65kW): Hazten doan proiektua, eta oraindik parte hartu nahi duen edonorentzat irekia dagoena.

Horrez gain, **85 bazkide** garela ospatu beharrean gaude. Gure komunitatea hazten ari da, eta elkarrekin, etorkizun energetiko oparoago bat lortzen ari gara.

Aurtengo beste berri esanguratsuen artean, **Fagor kooperatibaren Herrigintza Lankidetzaren Programara aurkeztu garela aipatu nahi dugu gure komunitatearen parte hartzea eta elkarlana sustatzeko**. Programa horren bidez, tokiko energia proiektuak bultzatzeko tresnak eta baliabideak eskuratuko ditugu, gure inguruko herritarrek ere parte aktiboa izan dezaten. Eta berri onak ditugu: hiru finalistaren artean hautatu gaituzt! Ea ba datozen egunetan berri on hau ospatzeko moduan garen.

Denok batera, jasangarriagoa den etorkizun energetiko bat sortzeko bidean gaude. **Mila esker**, bidean bidelagun izateagatik!



Kaixo kaixo, Itsasondo!

Aurten ere, dagoeneko martxan gara Itsasondoko kale ekintzako eta gaztelekuko hezitzaileok. Dakizuen moduan, Itsasondoko jaietan, irailaren 19an, herriko haurrekin ekintza berezi bat egin genuen; jaiei hasiera emateko eta herriko plaza apaintzeko. Ekintza harekin hasiera eman genien urriaren 2tik aurrera haur eta gazteei zuzenduriko ekintzei.

Aurtengo ikasturterako, plagintza anitz eta zabala dugu aurrean, hainbat arlo jorratzen dituen ekintza ezberdinez osatuta. Kale ekintzei dagokionez, jolasak, eskulanak, sukaldaritza saioak, eta abar luze batez osaturiko plagintza antolatu dugu. Helburua, herriko printzipioei erantzungo dien zerbitzu parte hartzaile bat bideratzea izango da, 4-11 urte bitarteko haurren behar eta nahietara egokituta. Izan ere, lehenengo kale ekintza saioan, jolas parte hartzaile baten bitartez, haurrek ikasturteko plagintzan haien ekarpenak eta nahiak adierazteko espazioa sortu genuen. Hori horrela, 2024/25 ikasturtean asteazkenetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara haurrei zuzendutako ekintzak ahalbidetuko dira.

Bestetik, gaztelekuari dagokionez, gazteekin batera programazio zabala antolatu genuen urriaren 4an, haien nahietara eta beharretara moldatutako plagintza zabala osatzeko. Helburua, zerbitzu iraunkor, parte-hartzaile, komunitario eta eraldatzaile bat ahalbidetzea da; eta, horretarako, lehen esandakoaren harira, beharrezkoa ikusten genuen haien hitzak lehen lerroa ekartzeara. Gaztelekua, ostiraletan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Animatu Itsasondoko haur eta gazteak kaleak astintzera!



Gazteak martxan!

Herriko gazteak aktibatu eta herritik herriarentzat lanean hasteko gogoz gazte asanblada sortu dute herriko gazte talde batek.



Duela gutxi sortu da Itsasondoko Gazte Asanblada. Instagram sare sozialean eman zuten haien taldearen berri eta orain haien lehen ekintza prestatzen aritu dira; Gazte Eguna.

Bertako kideak honako hau azaldu digute:

Nola sortu da Itsasondoko Gazte Asanblada?

Gazte batzuk elkartu ginen eta herriko gazteria aktibatu eta biziberritzeko, gure artean saretzeko, herritik eta herriarentzat gauzak sortzeko, herriari gazte ikuspegi bat emateko... aukera paregabean iruditu zitzaigun gazte asanblada sortzea. Behin ideia izanik, herriko beste hainbat gazterekin bildu eta asanblada sortzea erabaki genuen.

Zeinek hartzen duzue parte bertan?

Herriko adin ezberdinetako gazteak gara asanbladaren parte hartzaileak, eta talde anitza da gurea.

Zein dira gazte asanbladaren erronkak?

Lehen galderan aipatu bezala, helburu nagusienetako bat herriko gazteria antolatzea, elkar saretzea eta horrela herritik eta herriarentzat gauzak sortzea izango litzateke. Baina beste hainbat helburu eta erronka ere baditugu, herriko gazte gehiagok parte hartzea eta herriko problematikei gazte ikuspuntutik konponbideak proposatzea, esaterako, hala, gure neurrira egindako Itsasondo irudikatzeak.

Gazte asanblada sortzerako garaian, printzipio batzuk izan dituzue kontuan, guztiok adosturikoak. Gazte asanbladaren lan ildoak zehaztuko dituzten printzipioak direla, esan dezakegu... Zeintzuk dira? Gazte asanblada eremu irekia izatea, hau da, herriko gazte guztientzat parte hartzeko aukera egotea.

Ahalik eta gazte gehienak elkartuta, herri osoari gazte ikuspegitik ekarpenak egitea.

Zein izango da zuen dinamika? Maiztasun batekin bilduko zarete?

Elkartzeko beharra ikusten dugunean, noski, ekintza baten plangintza antolatzeko adibidez.

Zein erronka dituzue aurrera begira?

Helburu asko dauzkagu buruan, herrian gazteontzako espazioak lortzea, gazte asanbladako partaidetza handitzea, gazte borrokak herriratzea eta herriari gazte kutsua ematea, esaterako.

Udalari eskaeraren bat egin diozue edo egiteko asmorik baduzue?

Gazte Egunerako, udalak laguntza desberdinak eman dizkiugu, baina etorkizunerako hausnarketa prozesuan gaude. Alde batetik, eskaerak dirua lortzeko izango dira; eta, beste alde batetik, herriari ekarpen desberdinak egiteko.

*Goierriko Hitzan argitaratutako elkarriketaren informazioaz gain, gazte asanbladako kideekin osatutako elkarriketada.

Gaztelekuko arautegia

Aurreko aldizkarian Gaztelekuko sarbide berriaren berri eman genizuen. Sarbide sistema berritzearekin batera, arautegi berria ere zehaztu zen, eta oraingotan honen berri emango dizuegu.

Gazteri foroan aurkeztu zen lehenik Gaztelekuko arautegi berriaren proposamena. Ondoren, hezitzaileen laguntzarekin, gazteekin, arautegian jasotako edukia aztertu zen. Lanketa horretatik hainbat proposamen bideratu zitzaizkion udal taldeari. Egokiak ikusi ziren proposamenak arautegian txertatu ziren eta aintzat hartu ez zirenen inguruko arrazoiketa helarazi genien gazteei.

Bilkura bat egin zen arautegiaren inguruko kezka eta iradokizunei buruz hitz egin eta ahalik eta adostasun handiena lortzeko. Herritarrak eta erabiltzaileak deitu ziren bilera horretara, eta bertan, ekarpen berriak egin ziren. Hitz egindakoa kon-tuan hartuta, aldaketa batzuk egin ziren arautegian eta berriz partekatu zen erabiltzaileekin, eta horrela, arautegia bere horretan onartutzat eman zen.

Arautegi osoa web orrian ikusgai duzue: <https://www.itsasondo.eus/node/10059>. Dena den, orain, modu laburrean bada ere, arautegiko gauza aipagarrienak azalduko ditugu:

Norentzat

Gaztelekua **14 urtetik** aurrera erabili ahalko da modu autonomoan (14 urteak beteak edo urte horretan bete behar dituzte).

Sarbidea

Ateko sarraila **mugikor bidezko aplikazioz irekitzea lehentsiko** da. Mugikorra ez dutenen kasuan, txartel bidezko sarbidea emango da. Beharrezkoa izango da erabiltzaile guztiak beraien sarbidea erregistratzea Gaztelekura sartzean (sarbidearen azalpen gehiago arautegian bertan edo Itsasondo 2.0- 57. zenbakian; <https://www.itsasondo.eus/node/10844>

Ordutegia

Urtean zehar, orohar, ordutegi hau izango da:

- Astelehenetik ostegunera: 17:00 – 20:00
- Ostiraletan: 17:00 – 20:00 | Hezitzaileekin
- Ostiraletan: 20:00etatik eta gehienez 01:00a arte. 22:00etatik aurrera, isiltasuna.
- Larunbatetan: 11:00etatik eta gehienez 01:00a arte. 22:00etatik aurrera, isiltasuna.

- Igandetan: 11:00etatik gehienez 22:00ak arte.

- Jaiegunetan: Larunbatetako ordutegi berdina izango da. Opor garaietan, berriz, honako ordutegia izango da (Aste Santuko bi opor asteak, Gabonetako bi opor asteak eta ekainaren 15etik irailaren 15era):
Egunero: 11:00- 01:00

Eskola berriko obrak iraun bitartean, Gaztelekuan hainbat ikastaro eskainiko dira. Hori dela eta, ikastaro horiek dauden bitartean ezingo da Gaztelekua erabili. Ikastaroen ordutegiak Gaztelekuko atean jarritako egutegian zehaztuko dira.

Garbiketa

- Erabiltzaileak arduratu behar harko dira eguna bukatzean espazioa txukun uzteaz eta sortutako zaborra ateratzeaz. Garbitasuna mantentzeko behar diren garbigarriak udalak jarriko ditu.
- Hamabostean behin udaleko garbitzaileak pasako dira Gaztelekua garbitzera, baina garbitasuna zaintzea erabiltzaileen ardura izango da.

Arau-hausteak eta isunak



Arau-haustea

Arau-hauste arinak

- Erabiltzaileen batek garbiketa arauak behin ez betetzea.
- Ikastaroren bat dagoenean eta erabiltzeko debekua dagoenean gaztelekuan egoitea.
- Atea aplikazio bidez ez irekitzea behin (hau da aplikazioa erabili gabe sartzea).

Arau-hauste larriak

- Arau-hauste arinen bat bi aldiz errepikatzea.
- Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak burutzea: altzariak puskatzea, erabiltzaileen aurkako irainak... eta udalak dinamika larriki kaltetzen duen ekintza gisa baloratzen dituen bestelakoak.

Arau-hauste oso larriak

- Arau-hauste larriak bi aldiz errepikatzea.
- Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak errepikatzea edo erabiltzaileen kontrako eraso fisikoak egitea eta udalak dinamika larriki kaltetzen duen ekintza gisa baloratzen dituen bestelakoak.

18 urtetik gorako erabiltzaileentzat

Isuna

- Arau-hauste arinen kasuan erabilpen lizentzia kenduko da 6 hilabetez. (espazioa erabiltzeko debekua ezarriko da).

- Arau-hauste larrien kasuan, erabilpen lizentzia kenduko zaio erabiltzaileari urte batez (espazioa erabiltzeko debekua ezarriko da) eta 150 €ko isuna ordainaraziko da.
- Arau-haustea Gaztelekuko altzariak etab. puskatzea edo lapurtzea bada (Gaztelekuko dinamika larriki kaltetu dezakeen bestelako ekintzak burutzea), puskatu edo lapurtutakoaren kostua ordaindu beharko du erabiltzaileak.

- Arau-hauste larrien kasuan, erabilpen lizentzia edo txartela kenduko zaio erabiltzaileari betiko eta 300 €ko isuna ordainaraziko da.
- Erabiltzaileak sarbidea berri izan nahi badu, eskaera egin beharko du, gutxienez urte eta erdi pasa ondoren, eta udalak baloratuko du eskaera.

Adin txikikoentzat:

- Arau-hauste arinen kasuetan, 5 orduko komunitatearentzako lanak eginarazi ahal izango zaizkie.

- Arau-hauste larrien kasuetan, 15 orduko komunitatearentzako lanak eginarazi ahal izango zaizkie.

- Arau-hauste oso larrien kasuetan, 25 orduko komunitatearentzako lanak eginarazi ahal izango zaizkie.



Ander San Jose Galparsoro

1973an jaioa, jaiotzez lazkaotarra, baina txikitatik Donostian bizi, eta, hortaz, donostiarra.

Donostian noiz arte?

Donostiara 8 urte nituela joan ginen, eta, ondoren, 2010 arte-edo bertan bizi izan naiz. Haurtzaroa, gaztaroa, ikasketak... dena Donostian, Antiguon. Hala ere, Antiguon ez dut bizitza gehiegi egin, izan ere, nire lagun gehienak Amara eta ingurukoak dira. Antiguoko bizitza beranduago ezagutu dut, egia esan.

Katalunian ere bizi izan zara, ezta?

Bai, 5-6 urte Lleida hiriburuan egin nituen.

Eta nolatan hiriburutik hiriburura eta orain Itsasondon?

Lleidatik itzuli nintzenean, lehenengo Donostian egon nintzen gurasoen etxean, eta, gero, ez nuen oso argi non jarri bizitzen. Lehenengo Andoainen egon nintzen, baina alokairua garestia zen eta azkenean etxea erostea erabaki nuen. Itsasondoko Beko Kalen pisu bat agertu zen eta horrela iritsi nintzen Itsasondora. Baina hasieran esan dudana bezala, jaiotzez lazkaotarra izanik, Goierri ez zitzaidan arrotza

egiten. Donostiarrok inguru hau ezagutzen ez dugula uste duzue askok, baina ez zen nire kasua.

Zenbat urte daramatzazu Itsasondon?

8 urte. 2016ko urriaren 1ean etorri nintzen, gaizki gogoratzen ez badut.

Ikasketak non egin zenituen?

Lazkaon udaletxean, parrokian eta Mikelar eskolan ibili nintzela gogoratzen dut. Azken hark oso eraikuntza berezia zuen; txikia nintzen, baina zerbait gogoratzen dut. 3. maila Donostian

egin nuen, Santo Tomas Lizaoan. Gero irakasle ikasketak egin nituen.

Hasieratik aritu zara irakas-kuntza munduan? Lanean?

Ez, ez. Ia-ia nire azken lana izan da. Aldizkari denda txiki bat izan genuen, mezulari ere ibili naiz, musika-denda batean egin dut lan, autoen ordezkotiek saltzen ere bai... 2001etik ari naiz irakaskuntzan. Lehenengo Nafarroan, gero, Gipuzkoan. 23 bat urte dira irakaskuntza hasi nintzenetik.

Orain non zabilta?

Abaltzisketan. Eskola txikia da, hainbeste urtetan eskola asko ezagutu ditut, kolore guztietakoak. Lana egin dut Helduen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloan, Haur Hezkuntzan, eta, batez ere Lehen Hezkuntzan. Adingabeen zentro batean ere bai, Lleidan. Uda bat eman nuen han lanean. Beste mundu bat, beste errealitate bat. Gezurra dirudi, baina gure inguruan mundu ezberdin asko daude, hainbat mundu, hainbat errealitate.

Eta zer moduz Adingabeen zentroan?

Ondo, gurekin ondo portatzen ziren. Talde txikiak ziren eta segurtasun neurriak zorrotzak ziren. Gurekin beti ondo. Gero inoiz kalean topatu izan nuen baten bat, eta ondo.

Zaletasunak dituzula badakit.

Kirola bai, ezta?

Txirrindularitza beti gustatu izan zait. Aita ere txirrindularia izandakoa da, beasaindarra. Txikitatik, ez dakit oso ondo zergatik, baina oso gustuko izan dut txirrindularitza. Donos-

tian Frantziako telebista-kateak ikusteko aukera genuen eta bertan hainbat karrera ikusten genituen aitek eta biok. Orain ere zalea naiz. Eta ahal dudanean errepidera ere ateratzen naiz.

Afizionatu bezala ibili zinen?

Bai, 3 urtez. Baina ez nintzen ona. Lehenik, jubeniletan. Bizikletaz gain, frontenisa ere gustatzen zait, igeri egitea... baina sekulako zaletasuna ere ez dut.

Musika munduan buru-belarri ibili izan zara.

Egia esan, bai, azken urteotan Esne Beltza taldean. Nire musikarekiko lotura panderoa jotzetik dator. Gainera, nire familian osabak diskoetxea zuen, grabaketa estudioa, Euskal Herriko lehenengoetakoa: "IZ". Hori dela-eta, musikaren mundua ez zait arrotza izan. Behin 1988ko Trikiti Txapelketa Nagusiko Finalean polemika, iskanbila, izan zen, eta ama eta anaia bertatik gaiaz hitz egiten etorri ziren etxera. Orduantxe hasi nintzen panderoaz interesatzen, eta, intentzio gehiegi eduki gabe, panderoa jotzen hasi nintzen Joseba Iparragirre idiazabaldarrarekin. Gerora, musika-denda batean egon nintzen soinuak eta trikitiak konpontzen. Horretarako, bost hilabete pasa nituen Italian musika-tresna horiek nola konpondu ikasten. Ostean, Villabonako Martin musika-etxean hasi nintzen lanean. Xabi Solanok eta Jon Marik bertan ikasten zuten eta lagun egin ginen. Xabi Solanok Esne Beltza taldea osatu zuen eta taldean sartzeraz gonbidatu ninduen. Azken urte hauetan musika nire bizitzako alderdi garrantzitsua izan da.

Beste talderen bateko partaide izan zara?

Beno... "Mal de ojo" taldean, Donostiako talde bat. Oso ondo pasatu nuen, baina ez zen etapa luzea izan.

Publiko bezala edo eszenatoki gainean egoten zara gusturago?

Ez bata, ez bestea: eszenatoki atzeko lana gustatzen zait gehien. Nik Esne Beltzarekin egiten dudana zera da, antolaketa.

Zenbat lagun aritzen zarete Esne Beltza taldean?

Orain, 20 bat pertsona. Eszenatokiak 13 dira, musikari eta dantzarien artean. Eta beste 7 bat pertsona bai: managerra, argazkilaria, teknikariak, muntalariak, ni...

Eta zuk zer egiten duzu?

Koordinatzailetako bat naizela esan daiteke, antolaketan eta eszenatoki muntaian hartzen dut parte. Horrez gain, taldeko kontuak eta barne antolakuntzaren zati bat ere nik eramaten ditut.

Nolakoa da jendearen jarrera? Presiorik sentitzen duzu?

Beno, esango nuke jendeak oso jarrera ona duela, oro har. Taldea ez bazaizu gustatzen, ez zara kontzertu batera joaten. Ez da futboleko bezala; ez daude bi talde, ez daude irabazleak eta galtzaileak. Orokorrean giro ona sortzen da, giro polita. Tarteka etortzen da baten bat, argazkiak nahi dituenak, eta astuna izan daitekeena, baina oso-oso tarteka. Niri sekula inork ez dit eskatu argazki bat, pentsatuko duzuen bezala. Taldekide batzuei bai, baina beti ondo, neurrian.



Esne Beltzarekin Saguesen,
2024eko abuztuaren.



Umetan, Donostian, 1986 urtean.



Tourmaleten, 2020ean.



Joseba Iparragirrerekin jotzen, 1996 inguruan.

Kontzertu gogoangarrien bat?

Korrikako abestia Esne Beltzak egin zueneko. Urte hartan Korrika Baionan bukatu zen, eta kontzertu berezia izan zen. Taldeak protagonismo hori edukitzea handia izan zen. Edo Japoniara joan ginenekoa. Mundu mailako kontzertu batean jo genuen, baldintza tekniko ikaragarriak, jendea... Eta Donostiako Piratetan jotzekoak ginen Aste Nagusi hartakoa ere bai. Enbata sartu zen, eszenatokia, instrumentuak... dena izorratu zen. Piratek hurrengo egunetako batean jotzeko eskatu ziguten, arratsalde, eta oso polita izan zen. Enbataren osteko egunean Tafallan genuen kontzertua eta

gurekin jotzen zuen musika taldeak utzi zizkigun instrumentu guztiak. Baina kontzertu asko izan dira onak eta gogoangarriak.

Munduan zehar ibili zarete, hortaz.

Bai, Esne Beltza taldearekin Japonian, Suitzan, Alemanian eta Londresen. Japonian izan genituen baldintza teknikoak ikaragarriak izan ziren. Hemen ere badaude jaialdi onak, baina hangoa...

Eta Estatu Batuetan?

Grabaketa bat egitera joan ginen, baina Xabi Solanorekin bakarrik. Eta Cabo Verdere ere bai, grabaketan laguntzera. Xabiren lan bat zen, Elkanoren

mundu biraren abestia egin behar zuen, eta Elkanoren azken geldialdietako bat Cabo Verde izan zenez, bertara joan ginen. Interesgarria izan zen.

Euskal Herrian bizi al daiteke musikaz?

Zer da musikaz bizitzea? Musika jotzetik behintzat, zaila da, oso zaila. Ez dakit, ez dut horrenbeste jende ezagutzen, baina iruditzen zait oso zaila dela. Nik esango nuke inor ez dudala ezagutzen musika jotzetik edo abestetik bakarrik bizi dena. Gero betikoa: zer da bizitzea? Zenbatetik aurrera da ondo bizitzea?

Euskaraz aritzeak ba al du eraginik?

Nik uste dut baietz. Euskararena merkatu txikia da. Katalanek, adibidez, entzule gehiago dituzte, guk haiek baino askoz gutxiago. Eta merkatua txikia da. Eta iruditzen zait asko markatzen duela musikaren bitartez igortzen duzun mezuak. Begira Fermin Muguruzari gertatutakoa: Madrilen eta estatuko leku askotan egon da jo gabe.

Legorretako Antzokia. Zer da zuretzat?

Laguntza eskatu zidaten areto hartan kontzertuak antolatzeko, proiektu bat martxan jartzekotan ziren. Horrela, proiektuan murgildu nintzen ni ere bai. Musika inguru hauetan mugitzeko aukera aparta iruditu zitzaidan. Kontaktuak aprobetxatu, laguntza eskatu, pazientzia... eta kartelera polit bat lortu dugu azken urteotan. Hemen inguruan gauza politak antolatzeko leku aproposa da Legorretako Antzokia.

Aurten, apirilean, Su Ta Gar taldeak jo zuen, eta abenduan, Zea Mays dator. Pasa den urtean, Ruper Ordorika etorri zen. Urtean 6 bat kontzertu antolatzen ditugu. Fenomeno berezia da, Su Ta Gar, Ruper, Kepa Junkera, Zea Mays... zaila da horrelako musikariak herri txiki batera etortzea, baina behin etorrita, antzokia bete egiten da. Hain ezaguna ez den talde batek jende erdia baino gutxiago ekarriko luke; salto handia dago. Talde askok idazten digute etortzeko, baina etorri behar dira 15 entzule egoteko? Ziurrenik musikariak berdin-berdin etorriko lirateke, baina antolatzaile bezala, musikariengatik, zaila da.

Eta nolakoa da lana talde horiekin?

Polita. Normalean talde handiekin aurreko lana zorrotza izaten da, baldintzak beteko direla ziurtatu nahi dutelako. Baina behin etorrita, beste edozein talde bezala, primeran.

Anekdota asko daukazu?

Ez dakit. Gazteagoak gineanean parranda gehiago egiten genuen, eta, agian bai. Orain jada...

Ahaztuko ez duzun kontzertu bat?

Donostian nik uste dut gure adinekook zorte handia izan dugula. 1970eko hamarkadatik aurrera urte asko izan ziren musika aldetik zoragarriak. Bira guztiak Donostiatik pasatzen ziren. Gutxi batzuk kenduta guztiak pasatu dira Donostiatik. Eta, niretzat, urte horiek bizi izan ditugunok zorte handia izan dugu. Metallica, Dire Straits, R.E.M., Bob Dylan... egun ez da horren arrunta. Anoetako Belodromotik pasatu diren taldeen errepaso bat egingo bagenu, ikaragarria izango litzateke.

Eta garai hartan beste modu baten erosten ziren sarrerak, noski. Ez Internet bidez, egun bezala; sarrera fisikoak erosten genituen. Musika-dendetara joan eta han erosi. Orain Bruce Springsteen dator, 35.000 sarrerara salduko ditu, baina zenbat donostiar edo gipuzkoar izango dira sarrerak erosiko dituztenen artean? Askok eta asko kanpotik etorriko dira.

Lehen edozein momentutan zegoen kontzertu itzel bat. Orain ere bai, baina ez da lehen bezala.

Amets bat?

Esango nizuke bira handi bat egitea ez zaidala tokatu eta aukera emango balidate gustura hartuko nukeela. Lanarekin ez dakit nola egingo nukeen, baina baietz esango nuke. Eta, bestetik, konpromisoa izango litzateke, ba, ez dakit, Italiako Girora joan beharko banu talde bati laguntzera... horra ere joan nahiko nuke. Aukera horiek aprobetxatzen ahaleginduko nintzateke. Ez dakit posible izango nukeen, gauza asko hartu behar dira kontuan, etxeko egoera, lana...

Xabi Solanok orain zer martxa darama?

Nik dakidala, orain, Fermin Muguruzarekin joko du. Ez dakit zenbat kontzertu izango diren, baina taldean egongo da. Berari galdetu beharko diogu.

Itsasondon zer moduz?

Gustura. Hemendik mugitzeko asmorik ez dut.

Nolakoa izan zen harrera?

Gutun bat iritsi zitzaidan udal-etxetik, harrera-eguneko gutuna. Arraroa egin zitzaidan. Joan, ez joan, zalantzan ibili nintzen, baina azaldu nintzen. Guztiak harrituta, zer egiten zuen donostiar batek Itsasondon? Herriko jendea ezagutzen hasteko modu bat izan zen.

Leku ederra da. Ni, esan bezala, hainbat hiritan bizi izan naiz, eta hau beste gauza bat da: luxu bat, etxetik atera eta mendia daukazu bertan, Donostian Kontxatik pasea dezakezun bezalaxe. Begira, Donostiatik itsasoan igeri egin ahal izatea sumatzen dut faltan, udan.

Urte berria, denda berria



.....
Abendu amaieran, janari denda berria zabalduko da plazan. Lehenik zegoen denda txiki geratu da, eta handiago baten premia zegoela aztertu zen. Udalak plazan jabetzan zuen lokala txukundu da, eta bertan jarriko da janari denda berria.
.....



Urtea amaitzerako bukatuko dituzte Itsasondoko janari denda berriko lanak, eta, beraz, ondo bidean, denda berrian egingo dituzte herritarrek erosketak, 2025 urtetik aurrera.

130 metro karratuko solairu bakarreko denda izango da, irisgarria, zabala eta argitsua. Gaur egungo dendan bezala, denetarik produktuak salduko dira bertan, baita bertako eta inguruko ekoizleen produktuak ere. Berrikuntza handi bat ere izango da: erosketak online egin ahal izango dira. Gainera,

dendako ordutegian erosketak jaso ezin dituztenek kanpoaldera begira jarriko diren taktiletan izango dute horretarako aukera.

2023an, Next generation laguntzetara aurkeztu zen Itsasondoko Udala, eta landa eremuetan merkataritza jarduerak babesteko laguntza jaso zuen; ia 400.000€. Diru laguntza horri esker ari dira lanak egiten. Udan, Ipuru enpresari esleitu zitzaion obra, eta, ordutik, buru-belarri ari dira lanean, urte amaierarako lan guztiak bukatu beharrean.

Langileek lokalari itxura ematen dioten bitartean, denda berriaren inguruan hausnartzen aritu da udal taldea. Zer nolako denda nahi da herrirako? Zer zerbitzu eskaini beharko lituzke? Zer behar dituzte herritarrek?

Hausnarketa prozesu horretan, herritarren hitza entzutea ezinbestekoa zela iritzita, parte hartze saio dinamiko bat egin zen, irailaren 13an, denda berriaren atarian. Farapik gidatu zuen parte hartzea.

Saioaren helburuak ziren: herritarrek janari denda berria



bere egitea, erabakitze prozesuan parte sentitzea, dendak eskaini behar lituzkeen zerbitzuen inguruan iritzia ematea eta herritarren kontsumo beharrak identifikatzea.

Kartel handi batzuk jarri ziren horman, eta gometxen eta papertxoen bidez euren iritzia eman behar izan zuten itsasondorrek. Ondorengo galderak egin zitzaizkien: erosketak egiteko ordutegia, zein produktu erosiko lituzketen, zein zerbitzu berri ematea eskertuko luketen eta dendaren espazioa zein ekintza egiteko

erabiliko luketen.

Haurrek ere euren ametsetako denda koloreztatu, irudikatu eta marraztu ahal izan zuten, eurentzako espresuki jarritako txokoan. Marrazki bidez, denda berrian erosi nahiko lituzketen produktuak zerrendatu zituzten haurrek.

Hala bada, ariketa, jarduera eta dinamika ezberdinen bidez, euren nahiak adierazteko bidea izan zuten herritarrek, proiektu honen parte sentitzeko aukera. Eguzki goxotan, saio arrakastatsua egin zen. Denera, berrogeitik gora biz-

tanlek parte hartu zuten, baita haurrek ere.

Eta saio hartan parte hartzerik izan ezin zuten herritarrentzat, galdetegi bat zabaldu zen herrian, dendako zerbitzuaren inguruko galderekin.

Denda berria diseinatzeko parte hartze saioa izan zen irailekoa. Dinamikan jasotako iritziak eta beste zenbait alderdi kontuan izanda erredaktatu dira zerbitzua esleitzeko pleguak. Orain, obrei azken ukituak eman eta plaza nagusiko dendako pertsiana igotzea besterik ez da falta.



Euskaratik kulturartekotasunari begira

Urkipe eskolaren bueltan jatorri askotako familiak elkartzen gara, aniztasun handia dugu. Komunikazioa eta parte-hartzea hobetzeko, 'Euskara eta kulturartekotasuna' egitasmoa abiatu genuen joan den ikasturtean. Eskolan gauza batzuk aldatu egin dira ordutik, eta eskolaren atzetik, familia elkartean eta Udalean ere egingo dira aldaketak.

Itsasondon euskaraz bizigara, eta herrira datozen biztanle berriak ere gure hizkuntzara gonbidatu nahi ditugu. Hauxe da gure erronka: nola egin, euskaraz bizitzen jarraitzeko baina aldi berean herritar guztien komunikazio beharrak eta parte-hartzea sustatzeko?

'Euskara eta kulturartekotasuna' proiektuaren baitan,

komunikazio bide berri batzuk jarri ditugu martxan eskolan, eta oinarrian euskara eta kulturartekotasuna ulertzeko modu edo filosofia bat dago. Bi aldarrikapenetan labur daitেকে filosofia hori: euskara itsasondoar guztientzako hizkuntza dela eta gure identitate leku eta kultura batekin baino gehiagorekin lotu dezakegula.

Zeintzuk dira egitasmoaren helburuak?

- **Euskaraz bizitzea:** Udalerrri euskaldunak erabakigarriak gara euskararen biziraupenerako, baina gurean ere ez dago bermatua euskararen etorkizuna neurriak hartzen ez badira; ezinbestekoa da euskaraz funtzionatzen jarraitzea eta euskarari erabateko lehentasuna ematen jarraitzea.
- **Komunikazioa bermatzea:** Eskolako familia batzuek ez dakite euskaraz, eta ezinbestekoa da bideak eta formulak topatzea euren komunikazio beharrak asetzeko. Izan ere, seme-alaben ikasketa ikasketaren prozesuaren parte izateko edozein gurasorentzat ezinbestekoa da informazioa bermatua izatea.
- **Kulturalartekotasuna eta parte-hartzea lantzea:** Kultura ezberdinen arteko zubiak eraiki, herritar guztiak euskara hurbildu eta denen parte hartzea sustatzea eskolan eta herri mailako bizimoduan. Horretarako, garrantzizkoa da espazio batzuk konpartitzea eta konplizitateak bilatzea.
- **Euskara eskaintzea:** Helduak euskara ikastera animatu nahiko genituzke. Hurrei dagokienez, eskolako ikasle guztiek eskolaz kanpoko jardueretan eta herrian izaten diren ekitaldietan parte hartzea garrantzitsua da, euskaraz aritzeko erraztasuna lortzeko.



Zer aldatu da eskolan?

- **Ikasturte hasierako bilerak egiteko modua.** Familia guztiek elkarrekin entzuten dute eskolako informazioa, eta euskara ez dakitenek aldi bereko itzulpenarekin entzuten dute irakasleek esandakoa. Bileraren bigarren zatian, talde txikitan dinamika bat egiten dute familiek, elkar ezagutzeko eta harremanak sustatzeko.
- **Eskolako komunikazioak.** Orain, eskolak familiei Telegram bidez bidaltzen dizkie oharrak, euskara hutsean. Aplikazio horrek aukera ematen du testuak norbere etxeko hizkuntzara itzultzeko.

‘Euskara eta kulturalartekotasuna’ proiektua Zaldibian sortu zen 2021-22 ikasturtean, UEMAren eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZiren aholkularitzarekin. Zaldibiako esperientziaren atzetik, UEMAko hainbat herritara zabaldu da egitasmoa, eta momentu honetan 30 herri baino gehiagotan gabiltza lanketa egiten. Itsasondon 2023-24 ikasturtean hasi ginen.

Proiektuaren lantaldean, Urkipe eskolako irakasleak, udal ordezkariak, guraso elkarteak, Ongizate batzordeak, kideak eta UEMAko teknikaria daude. Taldea zabalik dago parte hartzaile berrietara.

Udala eta guraso elkarteak ere aurki hasiko dira Telegram kanala erabiltzen beraien komunikazioetarako. Horrela, euskara hutsez idatziko dituzte mezuak, eta herritar orok edukiko du aukera informazio hori bere hizkuntzan irakurtzeko.

EUSKARA, HORMA BEHARREAN ZUBI

Itsasondora heldu diren biztanle berri batzuek ez dute jakin hemen euskararik denik ere, eta euskarara hurbiltzea nahi badugu, garrantzitsua izango da beraiekin gure hizkuntzari buruz hitz egitea. Euskararen egoera zein den eta gure hizkuntzarentzat Itsasondo moduko herri euskaldunak zein garrantzitsuak diren azaldu nahi diegu. Hemen euskaraz bizitzen jarraitu nahi dugu, eta transmititu nahi diegu euskara ikastea seme-alabentzat ona eta beharrezkoa dela hemen bizitzeko.

Eskolaren helburua ikasle guztiek euskara ondo ikastea ere bada. Euskara lagungarria da "hemengoa" izateko eta garrantzitsua da eskolako materialak ikasteko eta etorkizunean lanerako aukerak izateko. Horretarako, euskara erabiltzeko guneak baliatu behar ditugu: eskolaz kanpoko jarduerak, udalekuak... Ume eta gazteek euskararekiko jarrera ona izatea ere nahi dugu, eta horretarako ezinbestekoa da familiek euskararekin jarrera ona adieraztea umeen aurrean. Familia batzuetan gaztelania ez ikasteko beldurra izan ohi da, eta horretarako arriskurik ez dagoela jakin behar dute; lehenago edo beranduago ikasiko dute gaztelania umeek, eskolan eta gizartearen bidez.

IDENTITATE PLURALA

Jendea jatorriarekin etiketatze-ko joera edo beharra izan ohi dugu, leku batekin lotzekoa. Itsasondoko haur batzuk ere, beraien azalaren koloreagatik,

nahi baino gehiagotan erantzun beharko diote, zoritxarrez, "nongoa zara?" galderari. Gai horretan ikuspegia aldatzea beharrezkoa dela uste dugu: identitate plurala izan dezakegula aldarrikatu nahi dugu, senti dezakegu komunitate edo kultura bat baino gehiagorekiko pertenezkoa. Ez dago aukeratu beharrik, eta batekoak sentitzeak ez du esan nahi besteari "traizioa" egiten zaionik.

Etxeko hizkuntzei garrantzia berezia eman nahi diegu. Psikolinguistek diotenez, etxeko hizkuntzak beharrezkoak dira garapen kognitiborako eta bigarren hizkuntzak ikasteko oinarria ere bada. Identitatearen parte dira etxeko hizkuntzak, eta familientzat eta komunitate osoarentzat baliabide praktikoa ere badira. Beraz, etxeko hizkuntzekiko abegikortasuna ere landu nahi dugu proiektu honen bidez.

Euskal Herritik ere kanpora migratu dugunean, zer gertatu da? Lekuan lekuko hizkuntzak ikasi ditugu, eta, aldi berean, seme-alabei euskara eta euskal kultura transmititu nahi



Egin nirekin ere euskaraz
Familiaren jatorriari lotutako aurreiritziengatik, heldu batzuek gaztelaniaz egiteko joera ere izan ohi dute umeekin. Ez ahaztu Itsasondoko haur guztiak ari direla euskaraz ikasten eta haiei gaztelaniaz hitz egitea "zu hemengoa ez zara" esateko modu bat dela (irudian iazko neguan UEMAK abiarazitako 'Egin nirekin ere euskaraz' kanpaina).

izan dizkiegu, bertan bizi diren euskaldunekin harremanak egin ditugu eta euskal etxeetan elkartu izan gara gure ohiturei eusteko. Erbestean gure identitateari lotutako hizkuntza eta ohiturei eustea guztiz normala eta humanoa da.





Kulturartekotasunerako betaurrekoak

Urriaren 8an eta 22an, Itsasondon kulturartekotasunaren inguruko bi tailerretan parte hartzeko aukera izan genuen, Udaleko hainbat batzordetan aritzen garen zinegotziak, teknikariak eta herriko bizitza dinamizatzen laguntzen dugun herritarrok. Emagin taldeko Maider Evaristok gidatu zituen saioak, eta guztira 15 lagun elkartu ginen esperientziak partekatzeko.

Kulturartekotasuna egunerokoan txertatzen

Tailer hauek aukera paregabea eskaini ziguten kulturartekota-

sunaren inguruan ditugun aurreiritziei buruz hausnartzeko eta gure eguneroko jardunean aniztasunaren begirada txertatzen hasteko. Maiderrek gidatutako ariketa eta dinamiken bitartez, aniztasunari buruzko kontzientzia berri bat garatu genuen, eta nola aplikatu dezakegun ulertzeko tresnak jaso genituen.

Tailerrek inguruko kultura eta jatorri ezberdinak ulertzeko aukera eman ziguten, eta aldi berean, eguneroko harremanetan begirada irekiago bat izateko baliabideak eskuratu genituen.

Saioek hausnarketa sakona

eragin ziguten, eta argi geratu zen gure udalerriaren eguneroko bizitzan kulturartekotasuna modu praktikoa txertatzea ezinbestekoa dela. Gure kudeaketan eta herritarrekin dugun harremanean aplikatzeko hainbat estrategia ikasi genituen, eta guztien artean konpromisoa hartu genuen elkarbizitza errespetuz eta aniztasuna aintzat hartuz bideratzeko.

Tailerrak esperientzia aberasgarria izan ziren, eta Itsasondon kulturartekotasunaren aldeko pauso eraginkorrak ematen jarraitzeko gogotsu atera ginen.

Herriko festen kronika

.....
Aurtengoan ere primerako
festak izan ditugu!
.....

Apirilean hasi zen jai batzordea buru-belarri lanean festen antolaketan. Bilera oparoak izan ziren eta hainbat adinetako herritarrek bildu izan dira bileretan: ekintzak proposatu, horiek antolatzeko beharrezkoak zerrendatu, boluntarioen sarea osatu, aurrekontuak eskatu...

Hortaz, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu jai hauek posible egin dituzten guztiei!

Irailaren 19an, osteguna, hasi genituen jaietako ekin-tzak: hezitzaileek gazteekin batera antolaturiko tailerrarekin lehenik eta ondoren jubilatuek eskaini ziguten askariarekin.



Ostiralean izan zen, ordea, jaien hasiera ofiziala. Aurrez, ohiko zinta karrera antolatu zuten guraso elkartekoek eta askaria ere eskaini zuten.



Ondoren, Ijitto kirol elkarteak pregoia irakurri eta eta Ijitto jaitsiera egin zen.



Urtero izaten dugu sorpre-saren bat eta aurtengoa ez da salbuespena izan, txalaparta ikastaroko herritarrek ukitu ederra eman zioten jaien hasierari.



Buruhandiak izan genituen ondoren, haur eta gazteak korrika jarri zituzten eta baita helduren bat ere.



Aratz Igarzabal, Eneko Araiz-tegi eta Ane Beloki bertsolariak izan genituen plazan.



Ordurako Itzal erromeriako lagunak soinu probak egiten genituen.

Herri afari bikaina zerbitzatu ziguten, urtero legez, Amunda eta konpainiak, eta Itzal erromeriarekin amaitu zuten herritarrek eguna, gorputza astinduz!



Tira, goizaldera arte gelditu ziren herritarrek baratxuri-zopa eta txokolate-janarekin amaitu zuten eguna.

Larunbat goizean goiz ere-siarekin ekin genion egunari.



Beitiko igoeran atera zuten izerdi pixka bat herriko haur eta gaztetxoak, bitartean frontoian paella erraldoia martxan jartzen zen bitartean.



Mozorro eguna izanik, herri-tarren originaltasuna ikusi ahal izan genuen. Gaia "lanbideak" izan da aurten, eta ugariak eta anitzak izan dira herritarrek aukeratu zituzten mozzorroak: suhiltzaileak, poliziak, lanbide galduak...



Bazkalostean, bingo musika-tua izan zen eta ondoren Ijitto Showaz gozatzeko aukera izan genuen. Ondoren, sariak eta ai-pamenak banatu ziren.



Gosea berriz piztuta, guraso elkartekoek eskainitako han-burgesa-janarekin ase ginen. Giroa berpiztu zuten "Sakatu" elektrotxarangakoek eta bi-kain ibili ziren herritarrek, dant-zan gelditu gabe! Jarraian, DJ Pottokis izan genituen, giroari eutsi eta goizalderarte musika jarritz!



Igandean, haurren gozagarri-rako puzgarriak egon ziren goiz eta arratsalde. Eguerdian, ohiko lege, hamaiketako izan genuen.



Arratsaldean, herriko txikiak ikusi ahal izan genituen pilota astinduz eta gazteek frontenis txapelketa egin zuten. Giro aparta izan zen.



Amaitzeko, Ijitto igoera izan genuen, eta Ijitto Kirol Elkartek Katehorratz taldeari pasa zion erreleboa. Hurrengo urtean beraiek izango dira pregoiaren bidez herriko jaiak hasiera emateko arduradunak.



Festak, jai giroan, sagardo dastaketarekin amaitu genituen.



Aipagarria izan da, herriko gazteek, jaietan Palestinaren alde egin duten salmenta. Bil-dutako dirua, ia 700€, Gazara medikamentuak eramateko erabiliko da. "Salam Palestina" elkartetik eskerrak helarazi diz-kigute. Zorionak!



Jaiak amaitutakoan, urriko herri bizitza batzordean egin genuen festen balorazio saioa eta jaiak orokorrean ondo baloratu diren arren, hobetzeko zenbait alderdi ikusi dira.

Bejondeizula, Itsasondo!

Hurrengo urtean, gehiago eta hobeto!

Saioa Garcia Rodriguez eta Jon Sanmartin

.....
Lau urte daramatzate herrian bizitzen, eta oso gustura daude, herri txikia izanagatik, denetarik duelako Itsadondok.
.....



Noiz etorri zineten Itsasondora bizitzera?

2022ko abuztuan.

Non bizi zineten lehen?

Ordiziako Bustuntza auzoan.

Zergatik erabaki zenuten Itsasondora etortzea?

Salgai zegoen etxebizitza bat aurkitu genuelako eta ezin genuelako aukera galdu, Ordiziatik hurbil bizi nahi genuen, gure familia bertan bizi baita.

Zer gogoratzen duzue etorri zineten lehen egun hartatik?

Ez da lehena zehazki, baina Hitzarkideak lortzeko plazan jarri zen mahaiko Ikerren, Joneren eta Erkudenen irudiarekin gelditu ginen.

Zer lanbide duzue?

Saio geografoa da eta ikerlaria da EHUn; nik, Soziologia ikasi nuen, baina mahastizain lanetan nabil Hika txakolindegian.

Itsasondoren zer ez zaizue

gustatzen?

Momentuz, gutxi daramagu hemen. Eman denbora akatsak ateratzeko... Beharbada, gure Luak gozatu ahal izateko txakurrantzako parkerik ez duela.

Itsasondoren zer gustatzen zaizue?

Herri txiki abegitsua dela, egunerokotasunean behar ditugun oinarritzko zerbitzu ia guztiak dituela eta ekintzak eta proiektuak antolatuta herriari bizitasuna ematen dioten biztanleak dituela. Zoragarria da aparkalekua, bidegorria, tren-geltokia, denda, farmazia, taberna eta baratzea etxe ondoan izatea.

Zer zaletasun dituzue?

Biok maite dugu mendia, Saiori alderdi geologikoa eta niri botanikoa. Niri (Jon), kirola ere gustatzen zait, orain crossfitean nabil eta herriko Ijittu futbol-taldeko kide naiz.

Janaririk gogokoena.

Babarrun-jana sakramentu eta guzti eta arraina parrillan egina.

Edaririk gogokoena.

Sagardo naturala.

Gogoko duzuen Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Aralarko eta Aizkorriko mendilerroak. Urkiara igotzea ere asko gustatzen zaigu.

Zerk eginarazten dizue irribarre?

Ezustekoen aurrean, arazoak beharrean irtenbideak ikusten dituzten pertsonekin bizitzeak.

Itsasondon biziko ez bazinate, non biziko zinatekete?

Goierri izugarri gustatzen zaigu, Saio hemen jaio zen eta ni etxean bezala sentitzen naiz. Zoritxarrez, zaila da herri handiagoetan hemen ditugun zerbitzuak, garraio-aukera eta gure maila sozioekonomikoa duten gazteentzat etxebizitza irigarria, dena batera, izatea.

Hemeroteka



GAZTE EGUNA (ekainak 15)

Herri eguna antolatzeko erreleboa hartu, eta gazteek "gazte eune" antolatu dute. Egitarau oparoa izan da egunean zehar; musika, bertsolariak, bokata-jana, etab. Gazteak jo eta su ibili dira, baita hain gazteak ez direnak ere! Bejondeizuela!



UDALEKUAK (ekainak 24- uztailak 19)

Aurten ere izan dira udalekuak. 2 urtetik 12 urte bitarteko haurren- tzako eskaintza izan da herrian. 50 haur inguru ibili dira bi taldetan, eta ekintza anitzak egin ahal izan dituzte.



GAZTELEKUKO ARAUTEGIA ADOSTEKO BILERA (ekainak 19)

Aldizkari honetako 12. eta 13. orrietan azaldu dugun bezala, Gazte- lekuko arautegiaren inguruko saio bat egin da. Saio hau erabiltzaile ororentzat izan da eta bertan landutakoarekin Gaztelekuko araute- gi berria findu da.



URTE AMAIERAKO ESKOLAKO BAZKARIA (ekainak 21)

Aurten ere ikasturteari amaiera eman eta eskola utziko du- ten ikasleak agurtzeko bazkaria antolatu dute guraso elkar- teak eta eskolak.



MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIA (ekainak 21)

Ohiko emanaldia izan beharrean, aurten, banda izan dugu herrian. Ikasturte amaierako bazkaria girotu dute.

STARBLUES TALDEAREN KONTZERTUA (ekainak 21)

Garagardo azoka dela-eta, aurren ere, musika talde baten emanaldia izan dugu. Starblues taldea izan dugu, giro paregabea sortu dute.



ARANZADIKO HITZALDIA (ekainak 28)

Meategietan egindako aurrikuntzak izan dira hizpide, besteak beste, Aranzadiko kideek eskaini diguten hitzaldian. Jende ugari bildu da deialdian.



DENDAKO PARTE-HARTZE PROZESUA (irailak 13)

Farapi kooperatibako kideek gidatuta etorkizuneko dendaren inguruko parte-hartze saioa egin dugu. Haur zein helduek herriko denda nolakoa izatea nahiko luketen azaltzeko parada izan dute.




HERRIKO JAIK (irailak 19, 20, 21 eta 22)

Aldizkari honetako 24 eta 25 orrietan jaso dugu herriko festen kronika.



PINTXO POTEA (irailak 27, urriak 4, 11 eta 18)

Festei jarraipena eman eta herri bizitza sustatu nahian, aurren ere, pintxo potea izan dugu. Ohiko arrakasta izan du eta ostiralero jende ugari bildu da, herriko eragileek egindako jaki goxoak dastatzeko.



PERTSONAL KONTXIS (urriak 18)

Pintxo poteari amaiera polita emateko helburuarekin, mikroantzerkia izan dugu; Ainhoa Martin eta Maite Saenz antzezleekin. Geure buruarekin ondo sentitzeko aholkuak eman dizkigute.



ANTIARRAZISMO FORMAKUNTZA (urriak 8 eta 22)

Ongizate taldeak antolatutako formazioa eskaini da, udal ordezkari, langile eta hainbat herritarrei. 59. zenbakian nondik norakoak azalduko ditugu:



"LUKUSAIN" PROIEKTUAREN AURKEZPENA (urriak 9)

Hitzar energia komunitateak antolatuta, Ordiziko Barrena jauregian izan da proiektuaren aurkezpena. Jende ugari bildu da jakinmina asetzerara. Hainbat egunetan informazioa zabaltzeko mahai informatiboa jarri da.



ASTEKLIMAREN BARRUAN, IXABEL AGIRRESAROBAREN IPUIN KONTAKETA (urriak 25)

Hondakinen kudeaketa eta trantsizio ekologikoa oinarri hartuta, ipuinak sortzen eta kontatzen erakutsi du Agirresarobe ipuin kontakariak. Liburutegian bildutako haurrak gustura aritu dira.



GAU BELTZA (urriak 31)

Aurten ere, gau beltza ospatu dugu. Bi ibilaldi ezberdinetan zehar herritar ugariak parte hartu zuen. Ibilbidean zehar kontakizunak entzuteko aukera izan zen baita beldurra pasatzeko ere. Ibilaldien ondoren afari partekatua egin zuten frontoian.



liburu gomendioa

**EL NIÑO****Fernando Aramburu**

Ortuellan, Euskal Herrian, larogeiko hamarkadan istripu batek hainbat familiaren bizitza suntsitu zuen. Istorio zirraragarria, adiktiboa eta hunkigarria, Aramburuk bakarrik kontatzen dakien bezala kontatua.

Nicasio erretiratuta dago, eta oste-gunetan Ortuellako hilerria igotzen da bere bilobaren hilobia bisitatzerako.

Herri hartako ikastetxe batean izan-

dako gas-leherketa baten ondorioz hil zen, beste haur ugariarekin batera. Istripu hark Euskal Herria eta Espainia osoa astindu zituen 1980an. Liburuan, tragedia lazargarri hark Ortuellako herritarren bizitzak nola nahasi zituen ikusiko dugu, pertsonen ustekabeko alderdiak nola azaleratu zituen: aitona baten bizipenak; ahaztezin bihurtzeraino handitzen den oroitzapena; urte asko geroago ama batek egindako testigantzan familiari gertatu zitzaionari egiten duen kronika objektiboa... Arambururen ohiko maisutasunarekin, ustekabeko emozioen istorio batean murgilduko da irakurlea, bisturi zorrotzeko miaketa psikologiko eta literarioan eta protagonisten patuen bilakaeran kateatuko gara. Nobelak dentsitate emozional handia du, eta arretaz irakurtzea eskatzen du, azken lerroraino, protagonisten patua ulertzeko eta hunkitzeko.

El ingenio de los pájaros

Jennifer Ackerman

**Algo temporal**

Hilary Leichter

**Sahara, herri bat erresistentzian**

Kristina Berasain

**Telleria eta gero, zer?**

Ernesto Prat

**Belarriko kulkerra**Uxue Alberdi
Begoña Durruty**El hijo olvidado**

Mikel Santiago

**Itsaso amniotikoa**

Oihane Jaka

**Oso latza izan da**

Xabier Mendiguren

**Mundu zitalaren kontra**

Lizar Begoña

**El año de la langosta**

Terry Hayes

**Errezeta****Perretxiko eta gaztaina krema****Zailtasuna: Erraza****Denbora, guztira: 30 min****Lantzea: 10 min****Egoketa: 20 min**

Osagaiak:

4 laguntzat

- Askotariko perretxikoak: 500 g

- Gaztainak: 12

- Txanpinoi freskoak: 100 g

- Barazki edo oilasko-salda: 1 l

- Baratzuri-aleak: 4

- Porru 1

- Esnegain likido apur bat

- Erromero freskoa adarrean 1

- Oliba-olioa

- Gatza

- Piperbeltz beltza





Nola egin perretxiko eta gaztainen krema

Perretxikoak freskoak badira, garbitu kontzienteki edozein lur hondar kentzeko. Txikitu eta gorde.

Gaztainak erre behar dituzu; mikrouhin labean, labean edo, izanez gero, danbolinean erre ditzakezu.

Zuritu itzazu baratxuriak eta moztu porruarekin batera, laminetan. Jarri oliba-olio txorrotada bat eltze batean, eta estali barazkiak, 10 bat minutuz.

Denbora hori igarota, gaztainen eta perretxikoen erdiak gehitu. Erregosi guztia minutu batzuetan, eta estali guztia barazki edo oilasko saldarekin. Jarri erromeroaren adaxka eta egosi dena su baxuan, 15 bat minutuz.

Denbora hori igarotakoan, gehitu esnegain likido apur bat, eta irakin ezazu beste bi minutuz. Orduan, sua itzali, erromeroaren adarra kendu, krema gustura zipritzindu eta irabiagailu baten laguntzaz fin irabiatu.

Krema prest dagoenez, goarnizioa prestatuko dugu. Lehenik, ondo garbitu txanpiñoiak eta ebaki xaflatan. Gorde. Bota zartaginean olio txorrotada bat eta erregosi gainerako gaztainak, kirrinkari geratu arte. Gorde hori ere. Bota krema plater saketan eta jarri gainean txanpiñoi xafla batzuk eta gainerako gaztainak.

Platera apaindu dezakezu piperbeltz beltz gehixeagorekin, oliba-olio txorrotada birjina gordinik botata eta, nahi baduzu, boiler beltz birrindu pixka batekin.

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA

Egunen batean itzuliko dela suposatzen du.

Lanean funtsezko papera jokatu izan du.

Asumitu zure errua.

EUSKARA TXUKUNA

Egunen batean itzuliko delakoan dago.

Lanean garrantzi handia izan du.

Onartu zure errua.

AI ENE!!!!

Euskararen eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna, euskararen aldeko ospakizun eguna da, abenduaren 3an egiten dena, Frantzisko Xabierkoaren egunean; izan ere, Frantzisko 1552ko abenduaren 3an hil zen, euskara zuen berezko hizkuntza eta, kondairak dioenez, hil aurreko azken hitzak bere ama-hizkuntzan esan zituen, euskaraz.

1930ean Eusko Ikaskuntzak ezarri zuen egun hau euskararen nazioarteko egun gisara. Lehen ospakizun egun horrek "lotsa handia litzateke guk, Euskaldunok, geure hizkuntza galtzen ikustea" izan zuen goiburua. Gerra Zibilaren ostean, 1949an berpiztu zen, Buenos Airesko Laurac Bat elkartearen eta, besteak beste, mundu osoko euskaldunei euskara landu eta sendotzeko laguntzak eskatzeko zizkieten. Frankismo garaian, Ipar Euskal Herrian eta Amerikako zenbait lekutan ospatzeko beste aukerarik ez zen izan, Espainiako diktadurako zentsuraren ondorioz. 1995ean Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu zuten.

Euskararen Egunak hainbat izen izan ditu. Lehendabizikoa edizioan "Euskararen Eguna" erabili zen eta ondorengo urteetan "Euzkararen eguna" edo "Euzkara Eguna" bezala izendatu zen, (garai hartan *euskara* hitzak *eguzki* hitzarekin lotura etimologikoa zuela uste zen, hortik geroago baztertu ziren **euzkara*, **euzko* eta *Euzkadi* horiek). Egun, Euskararen Eguna edo Euskararen Nazioarteko Eguna erabiltzen dira.



Mintzalagun taldea

Herriko hainbat forotan euskararen erabileraren inguruko kezka azaldu da: haurrek geroz eta gehiago erdaraz hitz egiten dutela eta helduok ere, maiz, jotzen dugula erdarara. Ohikoa bihurtzen ari da herritarrak, euskaldunak izan arren, erdara hutsean aritzea herriko hainbat gunetan.

Horrez gain, etorri berriek gure hizkuntza ezagutzeko premia ere nabaria da. Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak bideratzen dituen arren, ez da nahikoa. Helburu horrekin, mintzalagun taldea sortu nahi da. Alde batetik, euskara menperatzen ez dutenek, modu natural batean, euskaraz aritzeko gunea eskaintzeko; eta beste alde, herritar ororen kontzientziazioa lantzeko.

Horretarako, herritar euskaldunen eta euskaldun berrien beharra dugu. Zuzeneko harremanak egin beharko diren arren, prest bazaude adierazi zuen borondatea udal taldeko zinegotziren bati edo idatzi udala@itsasondo.eus helbidera.

agenda

AZAROA

- 7: Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.
- 7: Podologo zerbitzua, 15:30ean Bizi nahi elkartearen.
- 8: Bi arnas dokumentala eta egileekin solasaldia, 19:00etan Kulturgunean.
- 13: Kale ekintzaren barruan sukaldaritza tailerra, 16:30ean Arbelaitzen. Inna Mushashovarekin. 5 urtetik gorako haurrentzat.
- 13: Herri bizitza batzordea, 19:00etan bilera gelan.
- 15: Gaztelekuan ekintza.
- 16: Gaztain-jana, iluntzean frontoian.
- 20: Ipuin kontaketa, Betzaida Urtaza, 17:00etan liburutegian. Ondoren, kale ekintza.
- 22: Kantu afaria, Kuxkuxtu txarangarekin.
- 25: Emakumeen indarkeriaren aurkako eguna, elkarretaratzea.
- 27: Kale ekintza hezitzaileekin.
- 28: Bingoa, 17:00etan, jubilatuetan.
- 29: Gaztelekuan ekintza.
- 30: Talo-jana eta "Euskaldunon jatorria, euskara eta irria" Ion Martinez "Txiki" 17:30ean Kulturgunean.

ABENDUA

- 4: Kale ekintza, 16:30ean.
- 5: Podologo zerbitzua, 15:30ean Bizi nahi elkartearen.
- 11: Kale ekintza, 16:30ean.
- 18: Mural margoketa (kale ekintza).
- 24: Olentzero eta Maridomingi.

*** Gabonetako ekintzak egongo dira.

2025eko kultur ekintzak oraindik zehaztu gabe gaude. Herri bizitzan eta web orrian emango da horien berri.

telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarte	943 881339
Itsasondokoop	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Ugalde
 Erkuden Mendizabal
 Estitxu Irisarri
 Iñaki Aizpuru
 Itturritxiki guraso elkarte
 Haur eskola
 Hitzar komunitatea
 Leire Irastorza
 Maite Lasa
 Nagore Etxeberria
 Nerea Manzisidor
 Ongizate lantaldea
 Unai Aldasoro
 Urkipe eskola
 Urkipe eskolako haurrak

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herrikan kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
 itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
 SS-297-2010

ISSN:
 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 URTARRILEAN
 IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**



**UDALERRI
 EUSKALDUNEN
 MANKOMUNITATEA**